Babarrun eta sagardo lehiaketa egingo dira Santo Tomas Egunean

Ohi bezala, Donostian baino egun batzuk lehenago ospatuko dugu Santo Tomas eguna. Aurten, abenduaren 19an egingo da Santo Tomas eguneko azoka Usurbilen. Iaz babarrun faltan, ez zen lehiaketarik egin. Aurten, babarrun eta sagardo lehiaketak berreskuratu nahi ditugu. Baserriko produktuen azokarekin osatuko da abenduaren 19ko festa, igandez.



ABENDUAREN 19AN OSPATUKO DA SANTO TOMAS EGUNA.

NOAUA! Kultur Elkarteak baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu Santo Tomas eguneko azokara. Esan dugu, azoka abenduaren 19an egingo da Usurbilen. Hilabete falta bada ere, lerro hauetatik dei berezia egin nahi diegu inguruko babarrun eta sagardo ekoizle partikularrei (hori bai, sagardotegiak lehiaketatik kanpo geratuko lirateke).

Babarrun Lehiaketa

Parte hartzaile bakoitzak kilo bat babarrun ekarri beharko du. Ordainean, 9 euro jasoko ditu. Babarruna Santo Tomas egunean bertan eraman behar da azokara. Hala ere, izena aldez aurretik eman behar da, telefonoz: 943 360 321 telefonoan, azaroaren 30a baino lehen.

Lehiaketako irabazleek ondorengo sariak jasoko dituzte:

- 1. saria: 90 euro + trofeoa.
- 2. saria: 60 euro.
- 3. saria: 30 euro.

Etxeko Sagardo Lehiaketa

Etxean edo baserrian sagardoa egin duen orok har dezake parte (sagardotegiak ez dira sartuko lehiaketa honetan.) Partaide bakoitzak 10 botila ekarri beharko ditu, eta bakoitzeko 1,80 euro jasoko ditu.

Lehiaketako irabazleek ondorengo sariak jasoko dituzte:

- 1. saria: 90 euro + trofeoa
- 2 . saria: 60 euro
- 3. saria: 30 euro .

Sagardoa Santo Tomas egunean bertan eraman behar da azokara. Hala ere, izena aldez aurretik eman behar da, telefonoz: 943 360 321 telefonoan, azaroaren 30a baino lehen.

Baserriko produktuen erakusketa

Baserriko produktuen azoka ere egingo da Santo Tomas egunean. Etortzen den ekoizle orok 30 euro saria jasoko du. Izen emateko azken eguna, azaroaren 30a izango da.

Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko, deitu gure bulegora: 943 360 321.

Langile berri bat behar du NOAUA! Kultur Elkarteak

Egun erdiz arituko den diseinatzaile, kazetari eta dokumentazio arduradun bat kontratatzeko lan-deialdia egitea erabaki berri du NOAUA! Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak.

FUNTZIOAK:

1. NOAUA! hamaboskarirako eta web orrialderako diseinu eta maketazio lanak.
2. Dokumentazio-lanak. Argazkiak artxibatu eta biltegiaz arduratu.
3. Kazetari-laguntzailea. Albisteak landu eta argazkiak atera.

PROFILA:

- Dokumentazioan, diseinuan edo kazetaritzan ikasitakoa eta aritutakoa.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea.
- Herrikoa izatea baloratuko da.
- Gida baimena izatea baloratuko da.
- Teknologia berrietan trebatua izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia.

ZER ESKAINTZEN DA:

Sei hilabeteko lan kontratua. Lau orduko lan-saioa, gizarte segurantzarekin.

Curriculum-a azaroaren 26a baino lehen ekarri edo bidali:

NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 Z/G
20170 USURBIL

E-postaz, helbide hauetara igorri:
elkartea@noaua.com
erredakzioa@noaua.com



MAHUKA

Etx st k l , 3
T l 33 11

G z n t m kum zk n
m k rr uzt
h m n urk tuk uzu



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n tu k
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98